BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2956

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 12koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 158/2013 prozedura arruntari buruzko administrazio-espedientea bidaltzea xedatu eta interesdun izan daitezkeenak epatzen dituena.

158/2013 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion espedientea –prozedura arrunta– bidaltzeko eskatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak. Auzi-errekurtsoa ondoko egintzaren aurka jarri da:

2013ko urtarrilaren 9ko Agindua, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena. Honen bidez ezetsi egiten da, 2008ko Lan Eskaintza Publikoaren baitan, Laguntzaile Teknikoen kidegoan, Informatika Aplikazioak Garatzeko Goi-mailako Teknikarien aukeran sartzeko hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko azken kalifikazioak argitaratzen duen Ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsoa. Ebazpena IVAPeko zuzendariak eman zuen 2012ko azaroaren 12an.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, hauxe

EBAZTENI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak eskatutako administrazio-espedientea bidaltzea.

Bigarrena.– Aipatutako espedientean interesdun izan daitezkeenak epatzea, bederatzi eguneko epean ager daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salara, 158/2013 prozedura arruntean alderdi modura aurkezteko aukera izan dezaten.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen iragarki tauletan argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 12a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN